

Erlijio berrirantz

Adimen artifiziala geldiarazteko zenbait adituk idatzitako gutunak *hype*-a handitzen du. Kezka azaltzen badu ere, kezka horiek berak marko orokorra indartzen du, eta, beraz, kapital handiek bertan inbertitzeo interesa.

Pertsona horietako batzuek benetakoa kezka dute, baina beste batzuek, eta orokorrean testuak, kutsu arraro bat dauka: adimen

artifiziala gezurra hedatzeko tresna izan daitekeela diote, eztabaida kritiko eta sakonak behar dituela, arazo sakonen iturri izango dela pausatu ezean... Ez dute zalantzan jartzen zeinek eramaten duen aurrera eta zeinen esku gelditzen den teknologia. Proposatzen dituzten neurriak oso zailak dira abian jartzen. Badirudi Txinarekiko lehiakortasuna eta teknologia alorrean beraien klase barnean

IRLEN SAREA
Gorka Julio



ere atzean gelditu direnek besteak harrapatzeko intentzioarekin ere egiten ari direla zenbaizuk...

Kezka zintzoa edo ez, ahots horiek baino, benetan interesgarriak iruditu zaizkit Emily M. Bender (@emilymbender@daircommunity.social) ikertzailearen hitzak. Bender hizkuntzalaritza konputazionalako irakasleak esan du adimen artifiziala garaizteak dituen arriskuak eta kalte-

Agenda

ak ez direla «AA ahaltsuegi» baten ondorioz, baizik eta zein pertsonen esku dagoen botere-kontzentrazioa. Benderrek gardentasuna eskatu zien AAKo laborategiei, trebakuntza-datuei, eredu-arkitekturari eta trebakuntza-erregimenei buruz, eta politikariei hartu beharreko erabakietan. Guztion interesaren kontra ari direnen presioan ez erortzea eskatu die.

Guztiz libreak, gardenak eta anitzak ez diren teknologiek badakigu non bukatzen duten. Kapital metaketa handia behar bada horiek aurrera eramateko, eta hori batzuen esku bakarrik bada, goizago edo beranduago, in-

teres horietara makurtuko da elkimena, legeak kontrakora behartzen ez baditu. Ikusi da nola hasi zen Google (*don't be evil*) eta non bukatu duen; bilaketan lehen orria ez da bilatzaile baten orria, publizitate agentzia batena baizik. Eztabaida osasuntsu bat beharrezkoa da. Ez soilik erabilean, produkzioari dagokionez ere kontrol publiko edo herritar indartsu bat egotea garrantzitsua da. Egiten ez bada, adimen artifizial orokor baten etorrerarekin arnesten duen erlijio berri batean murgilduko gara, ebangelistak Silicon Valleyko guruak, apostoluak ingeniari-saltzaileak eta apaiza zure koinata.

Radio Euskadik 40 urte bete ditu, langileen protesta artean

EITBko langileek salatu dute 2009ko lan hitzarmen batekin ari direla produktu berriak egiten

Urtzi Urkizu

Egun berezia zuten atzo Radio Euskadin, 40 urte bete baitziren aro berriari emankizunak hasi zituenetik –aurretik, 1936ko irailean hasi zen; gerrarekin Bartzelonan finkatu zen; gerra ostean Ipar Euskal Herrira mugitu zen, 1946tik 1954ra; eta Venezuelatik emittitu zuen 1965etik 1977ra—. Eta urteurrenoko egunean, elkarretaratzea egin zuten atzo Bilboko EITBren egoitzan, taldeko irratiaren zentro arteko batzordeak deituta. «Ospakizunek ezin dute ezkutatu irrati publikoaren zentro guztiak gaur egun bizi duten egoera», salatu zuten.

Langileen ordezkarien arabera, hamahiru urte daramatzate «hedabide baten errealitatea jaso beharko lukeen lan hitzarmena» negoziatu ezinik. «Euskarri berriak, produktu berriak, eta gero eta produktu gehiago egiten ari gara 2009ko lan hitzarmen batekin», salatu dute langileek. «Eguno lan hitzarmenak ez ditu jasotzen langileok ditugu funtzio berriak, ezta profil berriak ere. Hori gutxi balitz bezala, ezin ditugu erabili lan hitzarmen horretan jasota dauden hainbat tresna». Horien artean, bizitza laborala eta pertsonala kontziliatzeko garaiak, zuzendaritzak «ahalik eta erarik murriztuz» aplikatzen duela diote langileek.

Lau eskaera egin dituzte langileen ordezkariak: «Lan hitzar-



EITBko Irratielako zentro arteko batzordeak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo Bilboko egoitza aurrean. ELA

men berri baten negoziazioa, berrehala; lantaldea behar berrietara egokitzea; Euskal Irrati Publikoan ari diren langileek garapen profesionala gauzatu ahal izatea; eta bien bitartean, langileei aplikatzea lehendik onartuta dauzkaten eskubideak, lan hitzarmenaren aplikazio bidegabea alde batera utzi».

Saioak egoitzako hallean

Ez da langileen protesta entzun EITBko hedabideetan urteurrenaren ari direnean. Aldiz, Radio Euskadin azkeneko urteetan esatari eta solaskide aritu diren asko-

ren ahotsa entzun zen programa gehienetan. Bilboko EITBren egoitzaren hallean egin zituzten irratsaioak: Xabier Garcia Ramsdenek *Boulevard* berezia egin

EITBko langileen ordezkariak eskatu dute lantaldea irratielako dauden behar berrietara egokitzeko


zuen, eta kolaboratzaile ugari pasatu ziren bertatik. Lourdes Penaz, Braulio Gomez eta Inaki Anasagasti solasean aritu ziren. Horrez gain, Xabier Lapitz, Dani

Alvarez, Kike Martin eta Almudena Cacho aritu ziren, besteak beste, mikroaren aurrean.

Toki berean egin zuen Iñigo Lejarzak *La Terraza* programa, Cesar Perez Gazolazek *Kirolaldia*, eta Galder Perezek *Kultura* eus.

Arratsaldean, *Distrito Euskadi* saioan azkeneko 40 urteotako une garrantzitsuenak gogoratuz egin zuten bidaia berezia.

Radio Euskadiren urteurrenaren aurretik, Euskadi Irratiak bete zituen 40 urte azaroaren 23an. ETB emititzen hasi zela, berriaz, 40 urte bete ziren abenduaren 31ko gauean.



Paul Urkijo. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

'Hitzetik hortzera' gaur amaituko da, Paul Urkijorekin

U.U.

Denboraldia bukatuko da gaur ETBko *Hitzetik hortzera* bertsolaritza saioarentzat (21:00). Azkeneko atal honetan, Eider Perezek Paul Urkijo zinemagilea elkarriketatuko du. *Irati* filmak izan duen harreraz eta euskal mitologiaren mintzatuko dira, besteak beste. Bertsoko ere entzungo dira, hala ere, programan: Biriatuan (Lapurdi) ikastolen alde egin zuten jaialdiko bertsotatik eman gogoratuz. Saio horretan Amets Arzallusek, Maialen Lujanbiok, Andoni Egañak, Oihana Iguarane eta Maddalen Arzallusek kantatu zuten. Horrez gain, Durangaldea Uztabarrizzen zikloaren barne, Zornotzan (Bizkaia) egin zuten saioko bertsoko entzungo dira. Alai Martin, Igor Galartza, Janire Arizabalaga eta Igor Elortza aritu ziren kantuan.